

Segapotoen Lurraldea

Skalariak

Nire untzia suntsienzina da
itsasoak ditut zeharkatzen
haize eta ekaitzen kontra
urrunetik lurra begiratzen

Nere kaxa bizi naiz uretan
maite dut itsasoan ibiltzea
ta ahal bezain urrun utziaz beti
segapotoen lurraldea

Txomiburuen, lurraldea
ganorabakoen, lurraldea
segapotoen, lurraldea

Hemen dira aurrerapenak
amaitu da libre zinen garaia
arrainik gabeko arrantzale
lurra egin da zure jabe

Jadanik ez da, itsasorik
ez dut ere gidatzeko untzirik
segapotoen menpeko robota
lur honetan etorkizuna
non izanen da, kresalaren deia
itsasoaren usaina, dakarkiden portua

Segapotoen lurraldea
txomiburuen, lurraldea
ganorabakoen, lurraldea
segapotoen, lurraldea